



AEK-k Bartzelonan aurkeztu zuen atzo Korrika 11.

Interneten zuzenean ikusiko da Korrikaren hasiera eta amaiera

Bartzelonan aurkeztu zuten atzo euskararen aldeko jaia

Erredakzioa / Donostia

Munduko edozein txokotatik zuzenean ikusi ahal izango dira Korrikaren hasiera eta amaiera, ekitaldiak gertatzen diren une berean irudiak zabalduko baitituzte Interneten bitartez. Bartzelonako Euskal Etxean, esate baterako, pantaila erraldoia jarriko dute euskararen aldeko jaiaren hasiera eta amaiera zuzenean jarraitu ahal izateko.

AEK-k, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak, Bartzelonan aurkeztu zuen atzo Korrikaren 11. ekitaldia, zeina gaur zortzi Iruñetik abiatuko den. Xabier Irazusta Korrikako koordinatzaileaz eta AEK-ko ordezkarienez gain, Kataluniako gizarte eta kultur esparruko hainbat gizon-emakume izan ziren ekitaldian: besteak beste, Albert Balanza kazetaria, Miquel Lluís Montane idazle eta

Kataluniako Unescoko elkarreetako lehendakaria eta Itziar Aduriz Bartzelonako Unibertsitateko euskara irakaslea. Ekitaldian izan ez ziren arren, Felix Marti Unescoko Linpuapax batzordeko lehendakariak eta Raimon abeslariak ere helarazi zioten atxikimendua Korrikari.

Korrika dela eta, Bartzelonako Euskal Etxeak ekitaldi sorta zabala prestatu du. Aurten Korrikaren hasie-

ra eta amaiera zuzenean ikusi ahal izango dira www.jalgi.com/korrika webgunean, eta, hain zuzen ere, sarbide hori erabilita, Euskal Etxean pantaila erraldoia jarriko dute, bai martxoaren 19ko hasiera ikusteko, bai hilaren 28ko Donostiako amaiera ekitaldia ikusteko.

Bi egun horietan egingo dituzten bilkurez gain, Euskal Etxekoek, hainbat *casal* (etxe sozialak) eta erakundeekin batera, kultur astea antolatu dute hilaren 19tik 23ra bitarte. Kultur aste horren barruan, Korrikari buruzko erakusketa ikusi eta hitzaldiak jarraitu ahal izango dira, eta astearen amaieran, *Korricusa* egngo dute, Bartzelonako karrikak zeharkatuko dituen korrikaldia.

Euskara Patronatua sortu dute Azpeitian

■ *Udala erabat euskalduntzea du lehen erronka*

Enekoitz Esnaola / Azpeitia

AZPEITIAK (Gipuzkoa) badauka bere Euskara Patronatua. Hain zuzen, atzo aurkeztu zuten Jose Mari Bastida alkateak, Nekane Larrañaga kultura batzordeko buruak eta Patxi Saez euskara teknikariak.

Azpeitian orain arte batez ere Udal Euskaltegiak bideratu du euskararen normalizazioa —orain hamabost urte sortu zen euskaltegia—, baina batik bat herritarrei euskara erakusteari egon da lotua erakunde hori. Euskaltegiak orain bere lanean segituko du, eta patronatuak hartuko du beste ardura guztia. «Horrela, beste pauso bat egingo da euskararen erabateko normalizazioa lortzeko bide luzean», esan zuen atzoko prentsurrekoan Larrañagak. Alkatearen ustez, «patronatu honek Azpeitiko gizartearen arlo guztietara zabaldu nahi du euskararen erabilera, eta, horretarako, behar bezainbeste baliabide jarriko dira».

Aurten 46 milioi pezetako aurrekontua izango du patro-

natuak (1,8 milioi libera), eta Udala erabat euskalduntzeko plangintza egitea eta martxan jartzea izango du 1999ko erronka nagusia. Patronatuak baditu beste egitasmo zenbait ere. Esaterako, laster jarriko dute *Euskararen Telefonoa*, eta, horren bitartez, herritarrek txanda hartu eta laguntza jasoko dute edozein idatzi euskaraz moldatzeko. Gazteei zuzendurik, hitanoari buruzko mintegi edo ikastaro bat ere egingo da, «herriko gazteak hitanoa nahasten hasi direlako». Beste asmo batzuk: Azpeitiko euskarari buruz *Iturri Zahar* programa, eta sentsibilizazioa lantzeko *Zabaltzazu* programa.

Patronatuko Zuzendaritza Batzordean EAJ, EA eta HBko ordezkari bana izango da (gaur egun horiek baino ez dute ordezkartza politikoa Udalean), baita Udal Euskaltegiko zuzendaria, euskaltegiko langileen ordezkari bat eta euskara teknikaria ere. Herriko talde euskaltzaleek ez dute ordezkartzarik izango, baina Patxi Saezek atzo esan zuen haiekin «harremana eta elkarlana» lortu nahi dutela.

Udaletan euskara zerbitzu gehiago nahi ditu Jaurilaritzak

■ *Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza horretarako lanean ari da*

Europa Press / Bilbo

EUSKO JAURLARITZAKO Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak euskara zerbitzu gehiago jarri nahi ditu udaletan. Horretarako, lanean ari da Sailburuordetza, azpiegitura teknikorik ez dagoen tokitan gutxieneko euskara zerbitzuak sortzeko, deialdi eta diru laguntzen bidez.

Jaurilaritzak 1996an egin zuen lehen deialdia, eta iaz 19 udalek izendatu zuten euskara teknikaria. «Euskara zerbitzuak indartu nahi ditugu, hizkuntza trinkotzeko lan garrantzitsua egiten dutelako».

Herri txikien kasuan, zerbitzua mankomunitateen bidez ematea egokitzat jotzen du Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak: «Mankomunitateen aukera oso erabilgarria da herri txikiei begira, bai herri euskaldunentzat, baita euskaldun ez direnentzat». Horregatik, sailburuordetzak adierazi du aurten mankomunitate edo koadriletako euskara zerbitzuek izango dutela lehentasuna.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren irudiko, herri batzuek, oso euskaldunak izanagatik, txikiak direnez ez dute euskara zerbitzurik sortzen, eta horiek mankomunitatean bilduta errazago dute zerbitzua osatzea. Txoriherrin, adibidez, halaxe egin dute.